

Guadianaz aski

TXILLARDEGI



«LOS de HB son como el Guadiana, que aparecen y desaparecen en las instituciones»...

Ez da lehen aldia. Eta azkenekoa ere ez, zoritzarrez. Eta ez diot gaurkoan alde politikoari begiratu. Hori baino okerrago baita arazoa. Gure mundua Espainiako mundua da.

Hitz horiek PNVko Deputatu Nagusi batek bota ditu. HB erasotzekotan, 'zezen-larru' famatura jo du. Beste hark bezala: «El lujo de esta palacio me recuerda al del Escorial»...

Ni ez naiz hidrólogo; eta adibide egokiak emango lituzke Prontxio geologiarik. Baina ondoko hauek bederen errazak dira.

Legartza erreka, Ortzanturieta muñoan jaiotzen diren (Nafarroaren Orbaizetan), lurrazpian izkutatzen da, gero berriro agertzeko irati ibaiarekin batzen.

Beste bat: Larraun erreka bera. Aralarren ondano jaiotzen da berehala. 850 metro agerian egin ondoren izkutu, eta Alli eta Iribas herrien artean azalartzen da berriro. Handik Uitzira, Lekunberrira, eta abar, joateko.

Baina euskaldun alienatu eta espainikorreren artean, izkutatuta egiten den ibai *bakarra* munduan, Guadiana da.

Hots, honek gauza bat erakusten du argiro: Espainian bizi garelako (bizi direla batzuk, batez ere); eta murciar batek eta euzkotar batek buruan (eta bihotzean!) duten zedarriz-multzokulturala, berbera direla.

Mediterraneoko giroa dastatzera, Marbella: Kantaurikoa hautatzekotan, San Vicente de la Barquera; musika alai, pasodoblea; festa ederra, korridak; euskal fonologia, 'iyabeta' eta 'ikusiko dugu'; Euskal Hezkuntza zuzentzeko pertsona egokia, Buesa; kaseta irakurgaria, 'El País'...

Horregatik idatzi dut haseran? Guadianaz eta Guadianakeriez, abertzaleok leporaino gaudela.

Grinpiz

XABIER OLEAGA



IRAGAN asteartean Madrilén Greenpeaceko titularrak ez da inkulturaren ondorioa — bi kideek, 'funanbulistak' komunikabide zenbaitzuren bertsion, burututako ekimtzak galdere asko sortu du hantzer hementan. FMren proposamenei buruzko ihardespeneak eginak zeuden jada eta Greenpeacekoek ere horretan sakondu nahi zuten. Baina, politikarien — ez politikaren — ironia, munduko populua asalaratuarentzat kalbario zahar berrituaz baino seguridade kontua ekarri zuten plazara. Seguridadea, eta ez hala ere denona, bai bakararen baizik. 'Palacio Mundial de Congresos-ko' aforo hartan ehundaka lagun zeuden Greenpeaceko bi kideek dolar faltsu baina adierazgarri nonahi bota zituztenean, 'Funanbulista' maskaratuaren ordez, 'terrorista' zomorroak izan baziren zer gerta zitekeen galdegin dute dardarka hartaz publikoan iritziak bota dituztenek. Edo, areto hartan zegoen errege Borboiari zer gertatuko ote zitzaion, «Gure erregearen seguridadea» aitaputa dute denek eta logikoa dirudi, hori ere aitortu behar da, kezka horrek. Borboiak seguridade gorpuz oso bat baitu bere inguruan eta hiritar arruntok ez dugu. Baina ardura guztiak koroidunaren gain konzentratzea, ez dut uste oso sana denik, edota arrunton zortek merezi duen garrantziari buruzko adierazpen fatalaren aurrean aurkitu gara berriro.

Azken batean, tesi dokoral euskaldun baten aurkezpenaren oraintsu entzun nuena egia bada, haur eskola bat eta arma fabrika bat elkarren ondano baleude, burruka operatibo egoera hipotetiko batean, gudari batek bigarrena hartuko luke objektibo bezala, eta lehenengoa afektatzea arrisku bezala kontsideratuko. Terroristarentzat, ordea, lehenengoa litzateke, ponentearen esanetan, helburu zuzena.

• DEIA

Astoak eta astozainak

Alderdi politiko guztiak lehengo lepotik dute buruz. Dagoeneko boto-eske hasi zaizkigu eta asmo horretan —goraipatzeko moduko asmoa, alegia— inoren aje, akats eta keriarik nabarmenenak erakutsiko dizkigute. Alderdi bakoitzak bere satarrak plazaratuko ditu —guzti-guztiak zailduak— eta horrek balizko boto-emaileen arreta piztuko du. Horrelakoxeak dira hauteskundeak, nik uste.

Lehengo lepotik buzia, beraz. Aurten ere proposamenak eta aginduak erruzka entzungo ditugu. Berdintsuak izango dira, noski, denborak ez baitu barkatzen. Aldaketa nimitxoak sartuko dituzte,



Unzun al diru Rappelena? Batek eta kezkatzen nau justizia bere kabuz egiten duen teleikustirik egotzak. Hala da. FORGES - EL MUNDO

baina, funtean, mezuak eta sermoiak ohikoak izango dira.

Alderdi honen inguruan adostasuna erabatekoa bada ere —erabatekoa baino gehiago esango nuke nik—, iritzi desberdinak sortzen dira mezuak zer nolako jaramon egin behar diegun jukatzeko orduan. Batetik, gezur ustelkin kopetaraino daudenek

buruz belarri egiten dute. Honelaxe azaltzen da, behinik behin, argazki sozial guztietan: gailurretik —haiek diotenez, bere jarrera gehiengoarena da— hauteskundeetako deia darrei muzin egiten diete. Baina ez fido: talde honetan badago itxuratu franko. Izan ere, neroni izan niteke horietako bat: guztien begietan politika eta politi-

koak hormara eramaten ditugu, baina etxe barruan... Bero, berdin da. Besterik, gezur ustelkin kopetaraino daudela esaten dutenekin kopetaraino daudenak. Hauek bada-kite hemen nork bere astoari egiten diola arre, eta, hamaika asto dagoenez, ezer ez dela aldatuko. Horregatik en-zutuen dituzte politikoko esandakoak, eta batzuk, sinetskaitz geratu arren, mitinetara ere joaten dira. Ni neuhaz eta mitinetara ez joan, talde honetan sar nintekela. Neuk ere uste dut badagola hamaika asto baserrian; baita asto adina astozain ere. Eta astozainek bere astoi egiten diete arre, ez besteenei.

Baina gure baserrian astoak, astozainak eta, ahaztu aurretik, astopitok bai baldin badira ere, asto-behiak ere badaude. Eta hauek bete behar dira.

L. EGIA

ZUZENDARIARI

FMI, BM eta GATT: legezko delikuyente eta hiltzaile?

Filosofiako apunte batzuk berrikustean 'neopositibistek' historiari buruz duten definizioa aurkitu nuen. Historia, gizaki delinkuyente eta hiltzaile haundien legeztapena besterik ez dela dio.

Madrilen, urriaren hasieran, FMI (Nazioarteko Diru Fondoa) eta BM (Munduko Bankua) erakundeak zenbait erabaki hartzeko elkartu dira. Hobeto esanda, beraien politika genozida jarraitzeko, ondorioz, gizarte, politika, ekonomia eta ekologia zantpatuz, batez ere Hegoaldeko herrialdeetarako.

Historia ofizialak beinekutako dituen hiltzaileen topaketa hauek (neopositibisten hiztegia kontuan izanda) ofizialtasunetik kanpo dauden historiari, kazetari edo geurearen antzeko diren elkarte anitzak ez dituzte onartuko.

Demokrazia erabat ahaztuta duten erakundeek ari gara. Nahiz eta bertako kide 150 herrialde baino gehiago izan, bakarrik 24ren artean (Iparraldekoek, aberatsek)

botoen % 55 dituzte. Zehatzago orandik, 5 herrialdeek (EEBBek, Alemaniak, Erresuma Batuek, Frantziak eta Japoniak) botoen % 44 dituzte. Edozein erabakiren aurrean EEBBek botoen % 20arekin betoa ezartzeko eskubidea dute, hau da, ezabteko boterea. Hau kontuan izanda, ez da harrizkoak aberastasun mundialaren banaketa dagoen bezala egotea. Energia, lehengai eta elikagaien % 80a herri aurreratu edo aberatsek (herrialde guztien % 20) kontsumitzen dute, aberastasunen % 20a herrialde pobretuzako geratuz (herrialde guztien % 80).

FMI eta BMren politikaren helburu nagusia, herrialde pobreen miseria haundituz, mendebaldeko herrialdeen eta Japonen antzeko bilakabide kontsumista eta parasitagarria mantentzea da. Zentzu honetan 'hirugarren mundua' lehengai, energia eta eskulan merkearen biltokia besterik ez da, azkulu gabe zabor kontaminante okerrenak hemen uzten dituztela ere.

Politikiok herrialde pobreak gobernua ezinik egiten dira. Gobernatzaile ustelak gizenzen doazen eran herrien ingresu eskasak geroz eta gehiago itozten dituen kanpo-zorra ordaintzeko diren bitartean. Herrialde hauei iparraldera ihes egin, gosez hil

edo aurrerakuntzarako laguntza ofizialaren bitartez bidaltzen ditugun armenkin beraien artean akatu. Goseak eta arnek ez badute jendetza honekin bukatzen, ekumenezko esterilizazio behartuak egiten zaizkie, batez ere indigena eta beltzei.

Azken finean, erakunde hauek kolonialismo mota sofistikatu bat basterik ez da. Honela kolonialismoak 'independenzi politikoa' duten herrialde pobreen dependentzia ekonomikoa sortzen du.

Bukatzeko salatuko dugu BMren ardura giza balore eta balore ekologiko ezagatik zenbait urteгийн erakuntzen. Eraikita dauden edo proiektuan dauden urtegi hauek urgumezkatuko dituzte hedadura haundiko oihanak eta basoak (Txilen, Txinan, Indian, Brasilgo Amazonian, e.a.) jendetza asko mugitzera behartuz. Azken hauek berralotzatzeko gobernuak leku ezgaitasuna adierazi du (adibidez: milioi bat pertsona Indiako Sardar Sarovar urtegiako proiektuan).

Beraz neopositibisten ikuspuntua zabaldu nahi dugu. Horrela ez bada adieraz ez zuten.

GOIERRIKO KOMITE INTERNAZIONALISTA

GAIA JARRITA



Intsumisio Eguna

Benetako borrokak egura seguru, kartzelan daude gure hainbat gudaiburu. Baina gehiago daude atzean adiduru. Denak abangoardian jartzen baditugu, armarik gabe baina armatuko dugu.

AITOR SARASUA

Egunkaria

Balioa: 1000. Prezioa: 2200.1. Legea: Gortutakoa. SS 800/90



OJOK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UJALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDIA

Kontseilari Ordazkaria: INAKI URIA

Gerentes: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTINELO OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEAHARRETA

Publizitate: MARI JOSE SAGASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Indusldea 01-02 Pabillona 1

20100 Lasarte-Oria. Tel: 37 15 45. Faxa: 36 54 93

Egokita sozialek, Publizitate eta Administrazio: Artiso Jakituna,

Itel: 20010 Donostia. Tel: 49 90 22. Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20.1. Leke: 01005 Gasteiz. Tel: 23 38 72. Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Itxaso Monsegria, 45. 15. esk. / Iruñea (dortze) / 31011 Iruñea

Tel: 17 80 7879. Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. Erkerta / 48003 Bilbo

Tel: 410 40 46. Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Panteoia 14. 1. 503 Posta

Kutxatua / 64100 Baiona. Tel: 59 59 35 75. Faxa: 59 25 75 11